


## PRESBIDE BERRIKUNTZAK 2019KO EKAINA

- 1- Eragin antikolinergikoa identifikatzeko aukera gehitu da Egokitzea botoian
- 2- Egokitzea botoia gehitu da Luzapena pantailan
- 3- Preskripzioak saihesteko aukera, baldin eta ontzien iraupena 365 egunekoa baino gehiagokoa bada
- 4- Jarraipen gehigarria eskatzen duten medikamentuak: ▼ triangelu beltza
- 5- OTI gabeko pazienteen identifikazioa eta errezetak inprimatzeko beharra
- 6- Profesionala eta errezeta inprimatu den zentroa identifikatzea

### 1- ERAGIN ANTIKOLINERGIKOA IDENTIFIKATZEKO AUKERA GEHITU DA EGOKITZEA BOTOIAN

Presbidek eginbide berria txertatu du **Egokitzea botoian**, eragin antikolinergiko handia duten 70 urte baino gehiagoko pazienteak eta egoera hori eragiten duten medikamentuak identifikatzeko. Egokitzea botoiak lehenik ere bazituen eginbide lagungarri batzuk, hala nola: interakzio larriak, bikoiztasunak eta gainditutako dosi maximoak bistartzeko aukera.




Preskripzioak. Eskatutako data-tartearen uneren batean aktibo egon ziren preskripzioak ikusten dira.

<input type="checkbox"/>	Egoera	Abzik	Ber./Amaiera	Mota	Espa.	Produktua edo DOE multzoa	DOE	Printzipioa
<input type="checkbox"/>	✓		2019/09/10	C	E	Tolterodina 4mg 28 Capsulas Liber Modifica	✓	Tolterodina
<input type="checkbox"/>	✓		2019/09/10	C	E	Citalopram 10mg 28 Comprimidos	✓	Citalopram

Sortu **Egokitzea** Abikidura Kontsultatu Amaitu Luzatu

Egokitzea botoia sakatzean, eta 70 urte baino gehiagoko pazienteen kasuan soilik, Presbidek ohar bat erakutsiko du eragin antikolinergiko handiko medikamentu bat edo eragin txikiko bi, gutxienez, preskribatuta baditu pazienteak, eta pazientearen gaineko eragin antikolinergikoan eragiten duten preskripzio guztien zerrenda bistaratuko da.



Elkarrekintzen, eguneko gehieneko dosien, bikoiztasunen, eragin antikolinergikoaren eta derrigorrezko dataren (tratamendu osoa) kontsulta


**⚠ Pazientearen tratamendu osoaren eragin antikolinergikoari buruzko kontsulta**

**70 urtetik gorakoek kasuan, baloratu pazientearen gaineko eragin antikolinergiko globala. Hauek preskribatu zaizkio:**  
 Potentzia handia: TOLTERODINA  
 Potentzia txikia: CITALOPRAM

Eragin antikolinergikoa baloratzeko, eragin antikolinergikoari buruzko INFAC buletin batean egindako berrikusketa hartzen du oinarritzat Presbidek (2019koa da buletina, eta laster argitaratu egingo da). Farmakoen taula Osakidetzako intraneten dago eskuragarri ([esteka](#)).

## 2- EGOKITZEA BOTOIA GEHITU DA LUZAPENA PANTAILAN

Preskripzioen berrikuspena luzatzeko pantailan, Egokitzea botoia gehitu da pazientearen tratamenduaren berrikuspena errazteko, berrikuspena luzatu ala ez erabaki aurretik.




<input checked="" type="checkbox"/>	Egoera	Mota	Espa.	Produktua edo DOE multzoa	DOE	Printzipio aktiboak	Hartaldi bakoitzeko dosia	Ohiko pauta
<input checked="" type="checkbox"/>	✓	C	E	Tolterodina 4mg 28 Capsulas Liber Modifica	✓	Tolterodina	1 KAPSULA	Gosaria
<input checked="" type="checkbox"/>	✓	C	E	Citalopram 10mg 28 Comprimidos	✓	Citalopram	1 KONPRIMATU	Gosaria

## 3- PRESKIPZIOAK SAIHESTEKO AUKERA, BALDIN ETA ONTZIAREN IRAUPENA > 365 EGUNEOA BADA

Presbiden batzuetan erabiltzen diren jarraibide posologikoen ontziak urtebete baino gehiago irautea eskatzen dute. Egoera horretan, medikazioa ezin daiteke farmazian eman, eta pazienteak kontsultara itzuli behar du medikuak preskripzioa alda dezan. Gorabeherarik ohikoenak medikamentu hauekin gertatzen dira: hala nola mingain azpiko nitroglicerina, salbutamol- edo terbutalina-inhalagailuak, eta pototan datozen produktu dietoterapikoak.

Orain arte, informazio-ohar gainerakor hau bistaritzen zen Presbiden: “La duración del envase supera los 365 días” (Ontziaren iraupena 365 eguneko baino gehiagokoa da). Halere, preskripziorako aukera ematen zuen.

Jasotako gorabehera kopurua ikusita, hemendik aurrera Presbiden ez da aukerarik egongo preskripzioak sinatzeko, baldin eta ontzien iraupena urtebetekoa baino gehiagokoa bada. Honako ohar murriztailea agertuko da; eta preskripzioa sinatu ahal izateko, preskribatutako jarraibidea zuzendu beharko da.




## 4- JARRAIPEN GEHIGARRIA ESKATZEN DUTEN MEDIKAMENTUAK: ▼ TRIANGELU BELTZA

Europar Batasunean farmakozaintzari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera, medikamentu jakin batzuek jarraipen gehigarria eskatzen dute, medikamentua duela gutxi baimendu delako, haren segurtasunari buruz erabilgarri dagoen informazioa


mugatua delako edo farmakozaintzako betekizun espezifikoak ezarri direlako baimena ematean. Medikamentu horiek identifikatu ahal izateko, bai fitxa teknikoan eta bai prospektuan, triangelu beltza agertu beharko da (▼). Informazio gehiago lortzeko, joan hona: [enlace](#)

Profesionalek horrelako medikamentuak errazago identifika ditzaten, Presbiden triangelu hori agertuko da preskripzioa sortzean, baita aldeaz aurretik sortutako preskripzio baten xehetasunak ikustean ere.




## 5. OTI GABEKO PAZIENTEEN IDENTIFIKAZIOA ETA ERREZETAK INPRIMATZEKO BEHARRA

Duela hilabete gutxiatik hona, Presbiden, OTI gabeko paziente baten datuetan sartzean, ohar gainerakor bat agertzen da berehala. Ohar horren bidez errezetak inprimatzeko beharra gogorarazten da, paziente horiei ezin baitzaizkie eman errezetarik modu elektronikoa farmazietan.



OTI gabeko pazienteen kasuan, Presbideko pantaila nagusian, ohar hau agertuko da modu finkoan:



## 6. PROFESIONALA ETA ERREZETA INPRIMATU DEN ZENTROA IDENTIFIKATZEA

Errezeta jakin bat non inprimatu den (profesionala eta zentroa) identifika daiteke Presbiden. Horretarako, preskripzioaren xehetasunetan, sartu **Inprimatutako kreditua** fitxan eta sakatu eskuinean agertzen den ikonoa.

Posologia	Datu gehiago	Aldaketak	Inprimatutako kreditua (Errezetak)	Dispentsatutako kreditua (eRrezeta)	Jakinarazpenak(0)				
Zk. 194640369518	Mota €	Inprimatzea 2019/06/13	Aurrekustutako banaketa-data 2019/06/13	KN 003831	Produktua edo DOE multzoa Fentanilo 200mg 28 Compridos Bucales	Ontziak 1	Tratamendua (egunak) 28	Beriz inprimatukoak 0	

Mostrar profesional y centro que realizó la impresión

 Sinatu  Sinatu eta inprimatu kreditua  Itzuli preskripzioen zerrendara  Produktuaren edo DOEaren fitxa  Kopiatu preskripzioa  Kreditu gehigarria  Abakidura


Profesionala eta zer zentrotatik inprimatu zen

**Profesionalaren datuak:**

Profesionalaren izena XXXXXXXXXX

Zentroa TXAGORRITXU H. Zentro kod. 15 Zerbitzu-erakunde HOSPITAL UNIVERSITARIO ARABA Zerbitzu-erakunde kod. 10

Zerbitzu ANESTESIA Y REANIMACIÓN Zerbitzu kod. 2440 Atal UNIDAD DEL DOLOR Atal kod. 2443

 Itxi